

UNIBERTSITATEKO IKASLEEN HIZKUNTZA-JARRERAK NAFARROAN

Garazi Labiano

kerketa honen helburua irakasle gradua egiten hasi diren Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleak euskaraz noiz, non eta norekin mintzatzen diren eta, orobat, noiz, non eta zergatik ez diren mintzatzen aztertzea izan da. Horretarako, azterketa egiteko baliatu den godoia, hona hemen:

Taldeari, hasteko, hurrengo gaia proposatu zaio: **euskara zuen bizian nola, norekin, non erabiltzen duzue unibertsitatean eta hemendik kanpo?** (gela, talde lana, adiskideak, familia, irakasleak...).

Gaia ahitu denean hurrengo galderak egin dira:

1. Ikasleen euskara-erabileraren balioespena.
2. Euskara zergatik ez da gehiago erabiltzen unibertsitatean?
3. Euskararen erabilera eta egoera NUPen eta Irakasle graduan bereziki. Gutxi erabiltzeak kezkatzen zaituzte? Hitz egiten duzue ikaskideekin gai horretaz?
4. Azter ditzagun etorkizunean irakasle izanen diren horien artean gaztelaniak duen nagusitasunaren arrazoiak (pertsonalak, familiakoak, aurreko ikastetxeak, NUPekoak, eta abar).
5. Irakasle zaretenean, nola sustatu eta bultzatu behar duzue zuen ikasleen artean euskararen erabilera?
6. Bukatzeko, talde bakoitzari proposatzen diogu akordio batera iristea, NUPeko irakasle graduko ikasleen artean euskararen erabilera nagusi izan dadin.

Beraz, azterketa horren emaitzak dira XV. Jagon jardunaldietan aurkeztuko direnak.